

11. PROKLAMA

Lantegien eta topaketen programa

VENGANZA DE LO REAL


Luisa Pardok eta Gabino Rodríguezek (**Lagartijas tiradas al sol, Mexiko**) zuzendutako laborategia martxoaren 11tik 13ra Azalan, goizez edo arratsaldean; martxoaren 14tik 16ra Artiumen, Ekialde-Goikoa aretoan, goizez edo arratsaldean; martxoaren 17an Artiumen, Ekialde-Goikoa aretoan, lantegiaren hasiera 12:30ean; doako jarduerak argibideak eta izen-ematea: proklamar@gmail.com (toki mugatua)

VERACRUZ

Lagartijas tiradas al sol-en (Mexiko) performancea
Sala Mostrenka, Cubo kalea, 1 (Vitoria-Gasteiz), doako jarduerak
martxoaren 16an, 20:00etan

TIJUANA

Lagartijas tiradas al sol-en (Mexiko) performancea
Artium, Ekialde-Goikoa aretoa, doako jarduerak
Martxoaren 17an, 19:00etan
Jarraian elkarrizketa Luisa Pardorekin eta Gabino Rodríguezekin



11. proklama honetan lantegi eta topaketen programarekin jarraituko dugu Vitoria-Gasteizen, honako galdera honetara itzultzeko: Zertan da «Gu, herria» ariketa performatibo bat? Galdera horrek jadanik aurreko edizio zenbaitetan aipatua dugun *Gu, herria. Bilera-askatasunaren inguruko gogoetak* izeneko Judith Butler-en testu batean du jatorria. **Hamaikagarren edizio** honetan *Lagartijas tiradas al sol* mexikar taldea (gizartearekin, politikarekin eta komunitatearekin harremanean proiektuak sortzeko asmoa duten sortzaile eszenikoak) gonbidatu dugu (auto)biografiakoaren eta fikziozkoaren arteko mugak pitzatzeko.

Luisa Pardoren eta Gabino Rodríguez-en inguruan bildutako artista talde batek osatzen dugu **Lagartijas tiradas al sol**. 2003an hasi ginen proiektuak garatzen, lana eta bizitza elkarrekin lotu eta mugak ezabatzeko mekanismo gisa. Eguneroko jardunean bat egiten dena eta aintzat hartzen ez dena zentzuz bete, antolatu, lokatu eta argitu nahi ditugu gure lanarekin. Ez dauka zerikusirik denbora-pasarekin; pentsatzeko espazio bat da. Iraganeko gertakizunak hautatu nahi ditugu eta haien eraikuntzan lan egin; Historia eraikitzen den arbitrariotasuna utzi nahi dugu agerian, eta beste irakurketa bat sortu, aurrekoa bezain arbitrarioa, baina geurea. Ez dugu Historia zuzendu nahi, beste zerbait nabarmendu nahi dugu: besterik gabe, narratzailea aldatu, bizitako zein bizi gabeko iragan baten aktore bihurtu, oraina bere lekuan jarri, istorioak asmatu.
Biografia, dokumentu eta Historia ideien inguruan lan egin dugu.

Luisa Pardok eta Gabino Rodríguezek zuzendutako *Venganza de lo real* lantegian ondokoen antzeko galderei erantzuten saiatuko gara: zein dira (auto)biografiakoaren eta fikziozkoaren arteko mugak? Noiz gurutzatzen dira? Taldearena noiz bihurtzen da pertsonala eta alderantziz? Zertan bereizten dira kazetaritza-kontakizun bat, kronika subjektibo bat eta «benetako»-an oinarritutako eszenarako idatzi-proposamen bat? Horrelako proposamenetan abiapuntuko ni-a egilea ote da beti, ala beste alteritate batzuk ere ba ote dira, kontakizuna taxutzeko beren ahotsa uzten dutenak? Punto de Vista, Nafarroako Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdian hasi eta *Venganza de lo real*-ek Azalan eta Artiumen du jarraipena, Proklamaren esparruan.

Veracruz, nos estamos deforestando o cómo extrañar Xalapa hitzaldi bat eta esku-hartze bat da, barrua huste bat **Luisa Pardo**-ren aldetik. *La democracia en México* proiektuaren bigarren atala da. Mexikoko Errepublikako estatu baten arazo isilarazia hurbiletik ikustea da asmoa; narkotrafikanteen eta politikarien arteko aliantza batek gobernatu duen eta XX. mendearan hirugarren erdialdetik hona PRI beste alderdirik boterean izan ez duen estatu batena. Veracruz lurraldeetan aurkitzen da Cortés-ek Mexiko konkistatzeko hartu zuen bidea. Veracruz estatuan hazi zen Luisa Pardo. Veracruz lur-zerrenda mehe bat da, itsasertza eta mendiak dituena, eta pobretasun eta indarkeria handia, hilketak, desagertzeak eta isiltasuna. Luisa Pardok beste ahots askori egin nahi dio tokia bere esku-hartzean, beste pertsona batzuek jaiotako beste irudi eta iruditeria askori. Bera bezala herriminez dauden pertsonak dira, arterako eta gogoeta kritikorako, adierazpenerako maitasunerako, bizitzeko... emankorra den herriaren miñez.

Tijuana. Zer esan nahi du gaur egun demokraziak Mexikon gutxieneko soldaterekin bizi den 50 milioi pertsona ingururentzat? Zer espero dugu demokraziarengandik gaur egun? Demokraziak gairi, zer espero dugu politikarengandik? Ekonomiak baldintzatzen ditu politikarekin esperimendatzen dugun modua eta ditugun itxaropenak. Premisa horretatik abiatuz, **Gabino Rodríguez**-en esperientzia eszenaratzen da *Tijuana*-n. Sei hilabetez, Santiago Ramírez Tijuana hiritar (Kalifornia Beherea) bihurtuz, bere ohiko mundutik aldendu zuten baldintza jakin batzuetan bizi izan zen, inguru hartako lantegi batean gutxieneko soldataren truke lan eginez. Eszenaratzeak esperientzia hori kontatu nahi du, eta irudikapenaren ahalbideak neurtu. Beste bat izatea, beste pertsona baten bizitza bizitzen ahalegintzea. Beste norbaiten azalean sartzea. Ez al da hori jokatzea?

Proklama Artiumek eta AZALAK elkarlanean antolatzen duten arte biziaren inguruko egitarau sorta da
Egitarauak **12. Proklamarekin** jarraituko du 2018ko irailaren 8tik 22ra

UNE HONETAKO KONTAKIZUNA

(pantailan proiektatua)

Oraindik ezin dut hitz egin. Oso triste nago.

Oso haserre.

Minduta.

Ezin dut hitz egin Lagartijas tiradas al sol-i buruz edota boterearen aurkako antzezpenez, doluz natorrela esan baino lehen.

Emakumeak hiltzen ari zaizkigu pixkanaka.

Hartuko al dugu une bat bidegabeen, heriotzen, zerrenda bat egiteko?

[...]

Zer gertatzen zaie gizakiei istoriorik gabe geratzen direnean, elkarri istorioak kontatzeari uzten diotenean, erantzukizun hori, jolas hori besteen esku uzten dutenean, gainegituren esku, komunikabide masiboen esku, politikarien, Espainiako Erregearen, Coca-Colaren, bat-batekotasunaren esku uzten dutenean?

Zer gertatzen zaigu norbanako gisa, familia gisa, talde gisa?

Zer da komunitate bat kontakizuna alde bat uztearen baldintza horietan?

Nor gara gu, nor dira besteak, nor naiz ni?

Nola eta nondik elkar gaitezke, hitz egin diezaiokegu elkarri? Zer daukagu elkarrekin, nondik hasita sor dezakegu komunitatea? Komunitatea? Zer da hori?

[...]

Nire XX. mendearen kontakizuna: Nire haurtzaroaren zati bat bereziki goibela izan zen. Haserretzen zirenean, platerak lurrera bota eta hautsi egiten zituzten helduek. Liskarrean aritzen ziren kalean, autoan, gobernuaren bulegoetan, errepidean, egunsentian. Batzuetan, elkar jotzen zuten, eta garrasi egiten zioten elkarri. Ezkondu, eta ez ziren bata bestearekiko leialak, min egiten zioten elkarri, jakinaren gainean, batzuetan, amorrazioz eta herraz. Drogak hartzen zituzten, batzuetan bortitzak, beste batzuetan leunak. Eta indarkeria gorrotatuz hazi nintzen, nola kontrolatu ez nekiela. Helduak, nire inguruan, nire ordezt mintzo ziren, nire ordezt erabakitzen zuten, nire ordezt pentsatu nahi zuten, baina gatibu nindukaten etsai-inguru batean. Halako bahiketa humanitario, haurtzaroaren aldeko batean nengoen, beren dramak bizi zituzten eta nirekiko enpatiarik edo komunikazio-bide garbi, asertibo, malgu edo koherenterik sortzeko gai ez ziren heldu batzuen esku. Ez genuen elkarrekin kontakizunik sortzen, hitz egiterakoan ez genuen elkar ulertzen. Exijitu egiten zuten, ez ordea betetzen. Ongiaz mintzo ziren, baina beren arauak urratzen zituzten, nire muturren aurrean, zigorrik gabe. Politikarien antzera. Bien bitartean, gero eta lazarriagoa bilakatuz zihoan bizitzari buruzko teoria ederrekin borrokatu behar zuen neskato eskizofreniko bihurtzen ninduten. Zera esango luke Ilan Semo-k: ezinezko ahalbideak. Nire zoritxarrik handiena zen ez ulertzea noiz ezartzen ziren arauak eta norentzat; garbi ez ikustea, ez jakitea. Eta, nolabait, arau horiek sortzen ezin parte hartu izatea.

[...]

Inork galdetuko balit zer den antzerkia, une honetan zera erantzungo nioke: Kontakizun bati ahotza eta gorputza emateko aukera da antzerkia. Bizitzaren beste bertsio batzuk idazteko, ahotan hartzeko eta mamitzeko aukera da. Etengabeko krisiari ihesbide amestu bat aurkitzeko aukera da. Ziurtasun bat berresteko eta erantzunik jaso gabe geure buruari galdetzeko aukera. Arimaren eta arrazoaren erresistentzia-ekintza posibleak burutzeko aukera ematen digu antzerkiak. Antzerkia beste diskurtso baten aukera da, bazterretik atera eta, David Gaitán-ek esango lukeen bezala, itsutzen gaituzten hedabideek inposatutako melodramaren hormak haustekoa. Antzerkia gezurra ere bada, baina mexikarra bezalako sistema bidegabe, desberdin, ustel, hiltzaile eta maltzurari adorez erantzuten dion gezurra izan daiteke. Edota, besterik gabe, 15 urte ikusgai daramatzan eta gizon-emakumeak beren rol pasibo erosoetan hersten dituen harpetarra. Edota aurrekoetako bat ere ez.

Luisa Pardo. 2015eko irailaren 9an Centro Cultural Bella Época-n ezker mexikarraren mahai inguruan aurkeztu zen jatorrizko testuaren zatiak. Testu osoa: <http://www.lagartijastiradasalsol.com>

LEHEN YIVÍ IPARRORRATZ-KUTXA

Hona zer irakurri nuen goiz bero batean: «pertsonek batek egun bat duenean, 24 ordu bizitza osoa da: 1/1. Urtea betetzen duenean, 24 ordu bizitzaren 1/365 da, eta 45 urte dituenentzat, 24 ordu 1/16.425 da». Hau da, egun baten esperientziak zerikusi handia du norberak duen adinarekin. 24 ordu ez da gauza bera, iraupen bera izan arren. Egunak aintzat hartzen diren garai hori da haurtzaroa.

[...]

Yiví epe luzean egiteko pentsatutako proiektu bat da. Pedagogiarekin lotutako proiektu artistiko bat garatzeko ideia. 2014. urtearen hasieran, Luisa Cenformix-ekin jarri zen harremanetan, eta zentro horren bidez Nochixtlán-eko komunitatearen zati batekin. Topaketa horren ondoren komunitate hartako haurrekin proiektu artistiko bat egiteko ideia hausnartzen hasi zen. Joan den urtearen erdi aldera udako lantegi bat egin genuen, eta hura izan zen gerora Yiví proiektua bihurtuko zenaren lehen zirriborroa.

[...]

Nochixtlán hirira iristean hala dio idazkun batek: 10.800 biztanle, nahiz eta azken eroldaren arabera biztanleak 13.000 baino gehiago izan.

Nochixtlán náhuatl-etik dator eta 'kukurutxaren edo kotxinillaren tokia' esan nahi du.

Nochixtlán Mixteca garaian dagoen herri bat da. Migratzaile asko ateratzen da Mixtecatik AEBak aldera.

Nochixtlán hiri bihurtzen ari den herri bat da. Hiria nolana, inongo planik gabe, sartzen ari den espazio bat.

Nochixtlán baten eta bestearen arteko erdibidea da. Bi aukera horiek definitzen jarraitzea zaila bada ere. Urruntzen dena eta iristen ez dena.

Nochixtlán inoiz betetzen ez den etorkizuneko agindu bat da eta, aldi berean, erabat lurperatzen ez den iragan bat.

Nochixtlánen bizi dira: Yahir, Anabel, Tatiana, Frida, Jaciel, Eduardo, Naiveth, Ximena, Oswaldo, Sharon, José Manuel, María de la Luz, Isabela, Luis Ángel, Erandi, Metzi, Shandia, Yamilet, Alexa eta Felipe.

[...]

Lehendabiziko lantegi trinkoa 2015eko apirilaren 7tik 10era egin zen. Lau egun, goizez, egunean 4 ordu. Gero beste bi etapa burutu genituen, apirilaren 17-26 bitartean, ostiraletik igandera: larunbat eta igandeetan 4 orduko saioak, eta ostiraletan 2 ordukoak.

[...]

Neska-mutil talde heterogeneo bat genuen aurrean. Deialdian garbi adierazten bazen ere proiektua 7-12 urte bitarteko haurreentzat zela, hemen, alde guztietan bezala, badirudi arauak urratzeko egin direla. Beraz 4, 5 eta 6 urteko haurrak etorri zitzaizkigun. Haurren alde ona da haurrak direla. Eta haiekin lan eginez ematen du etorkizunaren ikuspegia zabalagoa dela, eta edozer gauza egin litekeela. Etorkizunean konfiantza mugagabea. Bigarren egunetik aurrera talde bat osatu genuen txikienekin, eta bereizirik lan egin zuten. Horri esker, helduagoek beste maila batean lan egin ahal izan zuten. Lehendabiziko egunetik galdera askori erantzun behar izan genion, hezkuntzari eta arteari (haien garrantziari eta itxura egokienari) buruz.

Adierazi nahi duguna nola adierazi? Zer da irakastea? Nola sartzen da prozesu artistiko bat pedagogian? Zein xede izan dezake arteak hau bezalako testuinguru batean? Nola sortu testuinguru artearentzat? Zer utzi nahi dugu hemen, eta zer eraman nahi dugu hemendik?

Gabino Rodríguez. Jatorrizko testuaren zatiak. Testu osoa: <http://www.lagartijastiradasalsol.com>